



### ADMINISTRAZIO-EPEAK ETETEA.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak, COVID-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duenak, hirugarren xedapen gehigarrian eten egin du abian diren administrazio-prozedurak izapidetzeko ezarritako epeen zenbaketa.

Zenbaketa hori hasiko da berriro Errege Dekretu hori edo, hala badagokio, haren luzapenak indarra galtzen duenean.

Epeen zenbaketari berrekiteko, prozedura bakoitzean eten diren egunak hartuko dira kontuan, eta horren berri emango da web orri honetan.

Xedapenak berriaz eragin die honako prozesu hauei:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoan kidegoan sartzeko hautaketa-prozedura, baita aipatutako kidegoetako espezialitate berriak eskuratzeko ere
- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarrien Kidegora sartzeko lehiaketa-oposizioa
- Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako ordezkogaien zerrendaren urteko birbaremazioa, 2020/2021 ikasturterako
- Autonomia erkidego mailako lekualdatze-lehiaketa, unibertsitatez kanpoko irakaskuntza-kidegoetako funtzionarioentzat, lanpostuak betetze aldera Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren mendeko ikastetxeetan.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren mendeko ikastetxeetan izaera bereziko irakasle-lanpostuak betetzeko lekualdatze-lehiaketa.
- 2019ko Giza eta prestakuntza-fondoa (Hezkuntza Bereziko lan-kontratudunentzat)
- Zerbitzu-eginkizunak eta klase-orduen 1/3ko murrizketak baimentzea osasun arrazoiak direla eta (2020/2021 ikasturterako).
- Hautetsia izateagatik zerbitzu-eginkizunak baimentzea (2020/2021 ikasturterako).
- 2020-2021 ikasturterako itundu beharreko unitateak zehazteko eskabideak aurkeztea.
- Informazio publikoa eskuratzeko administrazio-prozedura

Eta, era berean, epeak irekitzea ekarri duten beste administrazio-prozedurei, banakakoei edo kolektiboei.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 16a

Olatz Garamendi Landa  
Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea



HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN